

Iñaki Barrena

EKOLOGISTAK MARTXAN-EKO KIDEA

Nigeriako lapurrak

NAZIONALISMO ENERGETIKOA. Joan den astelehenean Euskalduna Jauregian Euskal Energia Erakundeak (EVE) ekarrita, Madrilgo Real Instituto Elcanoko aditu batek horrela definitzen zuen gaurko energia-segurtasunaren arriskuak. *Think tank* horren buruzagiaren ustez petrolio eta gasaren merkataritza libreari oztopoak sortu zaizkio Venezuelan, Bolivian, Errusian eta Iranen printzipalki. Nigeriaz, Afrikako esportatzaile nagusiaz ez zuen ia berbarik egin, soilik esateko barneko tentsioak direla medio leku ez segurua ari dela bihurtzen. Gurako nuke jakin lehen ilaratan zeuden euskal energia politikaren antolatzaileek zer pentsatu zuten. Duela gutxi independentzia energetikoaren aldeko apustu eginez, ziklo konbinatuko zentralen aldeko hautua egin zuten, Iberdrolak aginduta noski, eta Zierbenan, Santurtzin, Zornotzan eta Castejonek gasa erretzen dugu energia elektrikoa lortuz eta esportatuz.

BILBOKO SUPERPORTURA. Horra heltzen dira Nigeriako metaneroak, gure zentral termikoen egarria asetzeko eta Juan Mari Atutxa jaunak zuzentzen duen Bahia Bizkaia enpresak dituen biltoki erraldoietan pilatzen da. 2005. urtean kanpotik ekarritako gasaren %87a Bonny irlatik (Nigeria) etorri zen itsasontzitar astunetan. NLNG firmak (NNPC, Shell, ELF, Agip...) saldu eta Bahia



INIGO AZKONA

Bizkaia (Iberdrola, Repsol, BP-Amoco, EVE) erosi eta banatu zuen hemen. Gakoa da, Bonny irlako jendeak zein Niger ibaiko delta-ko biztanleriak ez duela inongo sosik ikusten, NLNGk Abujako Gobernuari, agintari zentrali soilik bideratzen baitizkie etekinak.

LAPURRAK. Nigeria Britainia Handiko inperio-
tik 1960an banandu zen, baina bi urte lehenago Shell-k petrolio putzu bat estreinatu zuen Oloibirin. Bertakoek orduan petro-dolarrekin

amestu zuten baina 40 urte luzez petrolioak xurgatuz gero negozioa bukatu zen. Han agindutakoaren zain daude oraindik. Ehunka putzu dituzten findegietako edo portuetako hodietako pitzadurak eta isurketak eguneroko ogia izanik, normalean deltako mafiek antolaturik, petrolioaren apurkak bakarrik eskuratzen dute nigeriar arruntek. Noizean behin leherketa eta hildako mordoa suertatzen denean hedabideek *lapurreta* horren berri plazaratzen digute. Kuriosoa benetan, diktadura zentralista militar batek antolatutako negozioaren parte direnek nigeriar txiroei

biziraupenerako petrolio tantak hartzeagatik, ohoinak deitzea. Egun, sasoi ez egonkorrean egonik, ontzi metaneroak *toque de queda* egoean betetzen ari dira. Ken Saro Wiva poeta ogonitarra petrolioko lapurrek hil zuten baina bere ideiek hor diraute. Bizirik eta zabaltzen. ■

«
Kuriosoa da, diktadura zentralista
militar batek antolatutako
negozioaren parte direnek nigeriar
txiroei biziraupenerako petrolio
tantak hartzeagatik, ohoinak deitzea
»

TXANDAN

Amatiño

Trikuak



Schopenhauerren trikuak gogora etorri zaizkit azken aldi honetan. Schopenhauer pentsalariari jaramonik egingo badiogu, negu gorriko gau ilunetan bildu omen zen, hotzez dardaraz, triku taldea basoan. Berotu beharraren beharrez, elkarren ondoan estu asko jarri omen ziren, bata bestea epeldu gurarik edo. Baina, trikuok dituzten eztenen eraginez, zenbat eta elkarren hurrago hainbat eta elkarri zizta gehiago, zirika hasi eta odoletan amaitu arte.

Ez zen nonbait giro. Elkarrengandik aldendu eta hoztu, elkarrengana bildu eta zauritu... Jira eta buelta, arre eta so,

harat-honat zirri-mirritan, azkenean trikuak ikasi zuten distantziarik komenigarriena neur-tzen eta egokitzen. Elkar berotzeko bezain

gertu, baina ez elkarri eztenik sartzeko bezain estu. Norberaren askatasuna segurtatzeko bezain zurrin, baina ez guztion elkartasuna eragozteko bezain urrun. Honela, Schopenhauerren ustez, trikuak asmatu zuten elkarbizitza zertan den.

Ez dut nik Schopenhauer tronpatu zenik esango baina, gure inguruan behintzat, adibideak gehiago balio du animalien sena adierazteko, pertsonen jokabidea ulertarazteko baino. Ezin esan bederen, zirika hasi eta odoletan amaitzeari utzi diogunik. ■